

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

#### **Foru Gobernu Kontseiluaren 750/2017 Erabakia, abenduaren 5koa. Onartzea Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorren 2017rako enplegu publikoaren eskaintza**

Uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, euskal funtzio publikoarenak, 23.1 artikuluan, azaroaren 7ko 16/1997 Legeak emandako idazkeran, xedatutakoarekin bat etorritik, "administrazio publiko bakoitzeko langileekin bete ezin diren giza baliabideak, hots, aurrekontu-izendapena dutenak, enplegu publikorako eskaintzaz beteko dira"

Ekainaren 27ko 3/2017 Legeak, Estatuaren 2017ko aurrekontu orokorrenak, mugak eta betekizunak ezartzen ditu langile berriak sartzeko 2017ko ekitaldirako, muga horien barruan onartuta, betiere errespetatuz gastuen aurrekontuen I. kapituluko aurrekontu baliabideak, hurrengo sektore eta administrazioetan enplegu publikoaren eskaintza deitzea. Era berean, lege horren 19.1.2 artikulua xedatzen du berriztatze tasa gehienez ere ehuneko 100 izango dela kasu haueetan, besteak beste:

E) Herri administrazioetan, hauei dagokienez: zerga, lan, dirulaguntza publikoen iruzurraren aurkako kontrola eta borroka, eta Gizarte Segurantzaren arloan, eta baliabide publikoak eraginkortasunez esleitzeko kontrola.

F) Herri administrazioetan, lege aholkularitzari eta baliabide publikoak kudeatzeari dagokienez.

S) Zerbitzu publikoetan herritarrak hartzeko langileei dagokienez.

Halaber, 19.1 artikuluko horrek 3., 4. eta 6. puntuetan hau ezartzen du:

3. Aurreko atalean jasotzen ez diren sektore eta administrazioetan, berriztatze tasa ehuneko 50 izango da gehienez ere.

4. Giza baliabideak berriztatzeko tasa kalkulatzeko, zehaztutako gehieneko ehuneko tasa aplikatuko da aurreko aurrekontu ekitaldian jasotzen diren sektore, arlo, kidego edo kategoria bakoitzean zerbitzua emateari utzi zioten langile finkoen kopuruaren eta ekitaldi berean, edozein arrazoi dela eta, -enplegu publikoaren eskaintzakoak edo lanpostua gorde beharrik ez dakarten egoeretatik berriro sartuak izan ezik- horietan sartu diren langile finkoen kopuruaren aldearen gainean. Ondorio horietarako, zerbitzua emateari uzteak zenbatuko dira egoera hauetan: jubilatzea, erretiroa, hiltzea, uko egitea, eszedentzian egotea lanpostua gordeta eduki gabe, karrerako funtzionarioa izateari uztea edo lan kontratua bukatzea, edo lanpostua gordetzea edo uzten den administrazioaren kontura ordainsariak jasotzea eskatzen ez duen beste edozein administrazio egoera. Kontuan izango dira, halaber, beste administrazio publiko batzuetako lekualdatze lehiaketak direla-eta izandako alta eta bajak.

Ez dira zenbatuko giza baliabideak berriztatzeko tasatik ondorioztatutako gehieneko plaza kopuruaren barruan, barne promozio prozesuen bidez betetzeko ateratzen diren plazak, ez eta epai bidez kontratu mugagabeko langile ez finkoei dagozkienak ere.

6. Bat.1 eta bat.2 puntuen ondoriozko tasaz gain, hauek izango dute aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa gehigarria: A), B), G), O) eta P) letretan adierazitako administrazio eta sektoreak eta udaltzaingoak (aurreko bat.2 puntuan arautuak); irakasle eta ikertzaileak (aurreko bat.2

puntuaren J) letran jasotakoak); zerga kudeaketa eta bilketa zerbitzuetan diharduten langileak eta zerbitzu eta jarduerak ikuskatu eta zehatzen dituztenak; Estatuko Enplegurako Zerbitzu Publikoetan eta langabezi sarien kudeaketa eta kontrol zerbitzua eta enplegurako prestakuntza zerbitzua eskaintzen duten autonomia erkidegoetako zerbitzu baliokideetan dihardutenak, eta Gizarte Segurantzako Estatuko Institutuan Osasun Ikuskaritza Taldeko mediku eta ikuskatzaile eskalan dihardutenak. Aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa gehigarri hori, gehienez ere, ehuneko 90ekoa izango da eta, horretarako, ezinbestekoa izango da plaza horiek aldeztatik aurrekontuz hornituta egon izana eta 2016ko abenduaren 31 aurretik hiru urtez, etenik gabe eta aldi baterako, beteta egon izana.

Egonkortze prozesu hauen ondoriozko enplegu eskaintzak onartu eta dagozkien aldizkari ofizialetan argitaratu beharko dira, 2017 eta 2019 bitartean, eta dagozkien ministerioak koordinatuko dituzte.

Alor bakoitzeko aldi baterako estaltze tasa, ekitaldi bukaeran, ehuneko 8tik beherakoa izango da.

Hautaketa prozesu horiek lehia aske, berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioak betetzen direla bermatuko dute eta Estatuko administrazio orokorreko, autonomia erkidegoetako eta toki erakundeetako lurralde eremuetako bakoitzean negoziatu ahal izango dira. Dena den, haiek garatzeko, administrazio horiek koordinatzea ahalbidetuko duten neurriak bideratu ahal izango dira.

Prozesu horien bukaerak ezin izango du ekarri, inondik inora, ez gastua ez kide kopurua areagotzea; hau da, prozesu horietan, ezinbestez, aldi baterako lotura duten pertsonak betetako eta egitura izaera duten plazak eskainiko dira.

Eskaintzaren jarraipena ahalbidetzeko, autonomia erkidegoek, Gastuen Estatuko Idazkari-tzaren bidez, Ogasun eta Funtzio Publikoaren Ministerioari egiaztatuko diote eragindako alor bakoitzean aldi baterako beteta dauden plazen kopurua.

Aurreko ahapaldietan xedatutakoaz gain, administrazio publikoek enplegua egonkortzeko tasa gehigarri bat eduki ahal izango dute 2017, 2018. eta 2019. ekitaldietan, baldin eta, langile publikoaren oinarriko estatutuaren testu bateratuaren laugarren xedapen iragankorrean xedatutakoarekin bat etorriz, plaza horiek aurrekontu horniketa duten eta 2005eko urtarrilaren 1aren aurretik etenik gabe aldi baterako beteta egon diren. Deialdi horiei aipatutako xedapen iragankorraren hirugarren paragrafoan xedatutakoa aplikatuko zaie.

Ordezkaritza duten sindikatuarekin negoziatu ondoren, apirilaren 12ko 7/2007 Legearen testu bateratuak, enplegatu publikoaren oinarriko estatutuarenak, 37.1.1) artikuluan jasotzen duena betez, erabaki honen xede da onartzea Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorraren enplegu publikoaren eskaintza, non, ekainaren 27ko 3/2017 Legeak, Estatuaren 2017ko Aurrekontu Orokorraren, 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, jasotzen diren aurrekontu zuzkidura duten eta zerbitzu publikoak ondo funtzionatzeko horiek betetzea luzaezina dela jotzen diren lanpostu hutsak, sartuta enplegu eskaintzan bai sistema irekiz bai barne sustapeneko sistemaz –sarbide sistema bietan txanda orokor zein ezinduentzako gordetako kupokoak– bete behar diren plazak. Aipatutako testu bateratua urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta bat etorriz ondoren aipatzen diren foru dekretuek ezarritakoarekin: diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretua, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehatzen dituena, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretua, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezartzen dituena, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretua, funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duena, hau

## ERABAKI DUT

Lehenengoa. Onartzea 2017rako Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorren zerbitzura dauden funtzionarioen eta erabaki honen eranskinean jasotzen diren plazen enplegu eskaintza.

Bigarrena. 1. 6/1989 Legeak, euskal funtzio publikoarenak, 55. eta 56. artikuluetan jasotakoa betez, eskala bakoitzean gorde beharrekoak dira barne promozioz betetzeko aipatutako eranskinean jasoak.

2. Barne sustapeneko txandaren bidez bete ez diren plazak ez zaizkio inolaz ere erantsiko txanda libreko sistemako deialdian eskainitakoei.

Hirugarrena. 1. Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuaren legearen testu bateratua onartzen duenak, 59. artikulua; euskal funtzio publikoaren 6/1989 Legearen zazpigarren xedapen gehigarria; eta araudi aplikagarria betez, finkatzen da lanpostu hutsen kopuru bat, ehuneko 33ko edo gehiagoko ezintasuna duten pertsonen bete beharrekoa, baldin eta hautaprobak gainditu eta bere garaian egiaztatzen badute aipatutako ezintasun maila. Plaza gorde horien kopurua ehuneko 7 izango da.

2. Ezinduentzat gordetako plazak plaza arruntekin batera deituko dira, erabaki honen eranskinean finkatzen denez, eta deitzen diren hautapen prozeduretan gainerako hautagaiek dituzten baldintza berberekin onartuko dira. Gainera, hala eskatzen duten ezinduentzat, hautaprobetan denbora eta baliabideak egokituko dira, baldin eta egokitzapen horiek proben edukia aldatzen ez badute edo horietan eskatzen den gaitasun maila gutxitzen edo kaltetzen ez bada.

Laugarrena. Aipatutako eranskinean derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duten plazak finkatzen dira, eta nahitaezkoa izango da hura betetzea plaza eskuratzeko.

Bosgarrena. Sartzeko sistema orokorra oposizio-lehiaketa izango da.

Seigarrena. Eskainitako plazak eskuratzeko prozedura eta betekizunak kasuan kasuko deialdietan finkatuko dira, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuaren foru aginduz onartuko diren oinarrien arabera.

Zazpigarrena. Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuaren legearen testu bateratua onartzen duenak, 70.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, hautaketa prozesuak gehienez ere hiru urteko epearen barruan deitu beharko dira, erabaki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Zortzigarrena. Argitaratzea erabaki hau eta bere eranskina ALHAOn, eta honen laburpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduaren 5a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta*

*Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*

**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**

*Funtzio Publikoko zuzendaria*

**ADOLFO LANDER VERA**

ERANSKINA									
AZPITALDEA	ESKALA, AZPIESKALA, ETA KLASEA	PLAZA	SISTEMA IREKIA			BARNE SUSTAPENEKO SISTEMA		GUZTIRA	
			TXANDA OROKORRA	EZINDUENTZAT GORDETAKO KUPOA		TXANDA OROKORRA			
				DDHE	DDGHE		DDHE		DDGHE
A1	221	ZERGA IKUSKATZAILEA	--	2	--	--	--	2	
			2	1	--	--	1	4	
C1	12	INFORMATIKA TEKNIKARIA	1	1	--	--	--	2	
			19	16	--	4	2	43	
		ADMINISTRARIA	22	20	--	4	2	3	51

**LABURTZAPENAK:**

DDHE: DERRIGORTASUN DATADUN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA  
DDGHE: DERRIGORTASUN DATARIK GABEKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

**ESKALAREN KODEAK:**

12: ADMINISTRAZIO OROKORRA - ADMINISTRARIAK  
211: ADMINISTRAZIO BEREZIA - TEKNIKARIAK - GOI-MAILAKO TEKNIKARIA  
221: ADMINISTRAZIO BEREZIA - ZERBITZU BEREZIAK - EGITEKO BEREZIAK